4. artikulua. ANAITASUNA PEÑAK berak, edo beste Atal batzuekin elkarlanean, erabakiko du zer-nolako jarduera antolatu eta garatu, ANAITASUNA PEÑAKO kide guztiek eta ANAITASUNA K.K.A.E.ko kideek elkarrekin gozatzeko, betiere Zuzendaritza Batzordearekin bat.

5. artikulua ANAITASUNA PEÑAK adierazten du ez dagoela ezein ideologia politikori edo erlijiosori lotua, eta bazkideen aniztasuna errespetatu eta errespetarazten du.

II. TITULUA BAZKIDEAK

6. artikulua. Peña lau bazkide kategoriaz osatuta dago:

- a) Bazkide Zenbakidunak.
- b) Adineko Bazkideak.
- c) Kanpo-Laguntzaileak, Elkartearen estatutuen 12. b artikuluaaren arabera.
- d) Txikiak.

7. artikulua. Bazkide Zenbakidunen, Adineko Bazkideen eta Kanpo-Laguntzaileen batura gutxienez 150 izanen da, eta gehienez, 300, eta horixe izanen da Peñaren masa soziala. Kanpo-Laguntzaileak gehienez 30 izanen dira.

Muga horiek aldatzeko, Peñako Zuzendaritza Batzordeak eskaera formala egin beharko dio Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari, aldaketak baloratu eta onets ditzan. Eskaerarekin batera, bideragarritasun ekonomikoari, sozialari, estrategikoari edo beste era batekoari buruzko argudioak aurkeztu beharko dira, Peñako Zuzendaritza Batzordeak egoki irizten dionarekin bat.

8. artikulua. Peñako Zuzendaritza Batzordeak ezarriko du nola arautuko den edo diren itxaron zerrendak, eta ANAITASUNA K.K.A.E.ko bulegoek kudeatuko dituzte. Hala ere, Bazkide Zenbakidunen taldera sartzen denak izanen du lehentasuna Peñan sartzeko. Inor ez badago, Kanpo-Laguntzaileen taldera sartuko ziren horiengana joko litzateke; baina inoiz ez, lehenago.

Peñan aldi baterako baja hartzeko aukerak arautuko dira, Peñako Zuzendaritza Batzordeak ezartzen duenarekin bat.



9. artikulua. Bazkide orok kuota bat ordaintzeko konpromisoa hartuko du. Batzarrak finkatuko ditu zenbatekoa eta maiztasuna, Peñako Zuzendaritza Batzordeak proposaturik, betiere Peñaren behar eta inguruabarrekin bat.

Kanpo-Laguntzailearen kuota % 25 garestituko da, Bazkide Zenbakidunak ordaindu behar duen kuotaren gainean.

Era berean, Peñako Batzordeak kuota bereziak ezartzen ahalko ditu, Batzarrak aurrez baimenduta, egoera jakin batzuei aurre egiteko, hala nola lokal berriak erosteko, berrikuntzak egiteko edo antzeko gauzetarako.

10. artikulua. Bazkide izaera, edozein izanda ere, pertsonala eta besterenezina da, eta bazkideen lekuak ez daitezke beste pertsona batzuen eskuetara pasatu, itxaron zerrendan izen emanik dauden gainerako kideak ez baztertzeko.

11. artikulua. Peñako Barne Araubideko Erregelamendu hau onesten den datan Peñako bazkide den oro zuzenean sailkatuko da berari dagokion bazkide kategorian.

Hala ere, Kanpo-Laguntzaile kategorian sartzen direnek Bazkide Zenbakidunen eskubideak eta betebeharrak mantenduko dituzte aitorturik.

I. KAPITULUA Bazkide Zenbakidunak

12. artikulua. Honatx Bazkide Zenbakiduna izateko baldintzak: dagokion itxaron zerrendan inskribaturik egon beharra; ANAITASUNA K.K.A.E.ko bazkide izatea, Elkartearen ordainketa guztiak egunean izatea, 18 urte bete izana eta Peñan sartzeko kuota ordaindu izana, Peñako Zuzendaritza Batzordeak bere garaian ezarritakoa.

ANAITASUNA K.K.A.E.ko bazkide kirolaria ezin izanen da Bazkide Zenbakidun izan, eta ondorioetarako, Kanpo-Laguntzailezat joko da, eta halakotzat ekin beharko zaio.

13. artikulua. Bazkide Zenbakidunak botoa eta hizpidea izanen ditu Batzarretan.

II. Kapituluak Adineko Bazkideak

14. artikulua. Honatx Adineko Bazkidea izateko baldintzak: ANAITASUNA K.K.A.E.ko bazkide izatea, Peñako Bazkide Zenbakiduna izatea aurreko azken 10 urtean, eta 60 urte bete izana.

15. artikulua. Adineko Bazkideak salbuetsita daude urteko jarduera derrigorrezkoa egitetik, eta % 50eko deskontua izanen dute urteko kuotan, Bazkide Zenbakidunaren zerga oinarria aplikatuta.

16. artikulua. Adineko Bazkideak hizpidea eta botoa izanen ditu Batzarretan.

III. KAPITULUA Kanpo-Laguntzaileak

17. artikulua. Honatx Kanpo-Laguntzailea izateko baldintzak: 18 urte beteta izatea, dagokion itxaron zerrendan inskribatua egotea, unean uneko inskripzio fitxa indarduna aurkeztea (berariaz Peñako Zuzendaritza Batzordeak sortutakoa) gutxienez Bazkide Zenbakidunen 5 abalekin; fitxa jendaurrean paratuko da 15 egunez Peñaren egoitzako iragarki-oholean ohar negatibo frogagarririk gabe; Peñan sartzeko kuota ordaindu izana, Peñako Zuzendaritza Batzordeak bere garaian ezarritakoa.

18. artikulua. Kanpo-Laguntzaileak hizpidea eta botoa izanen ditu Batzarretan.



III. KAPITULUA Txikiak

19. artikulua. Honatx Txikien Kategoriakoa izateko baldintzak: 18 urte baino gutxiago izatea eta Peñako Batzordeari Peñan sartzea eskatu izana. Peñak berariazko Erregistroa sortuko du.

20. artikulua. PEÑA TXIKIko kideek lehentasuna izanen dute Bazkide Zenbakidun edo Kanpo-Laguntzaile izaera eskuratzeko, dagokionaren arabera, 18 urte betetzean, eta Peñan sartzeko kuota ordaindu ondoren, Peñako Zuzendaritza Batzordeak bere garaian ezarritakoa, txikien kategoriatik adinez nagusia izatera pasatzen den unean, betiere baldin eta dagokion Erregistroan inskribatu bada Peñako Batzordearen bidez, 16 urte bete baino lehen.

Bestela, kasuan kasuko itxaron zerrendako azken postua beteko dute.

21. artikulua. Bazkide Txikien Erregistroak ez du izanen haien zat egiten diren jarduerak mugatzeko moduko kopuru gutxienezkorik edo gehienekorik.

IV. KAPITULUA Bazkideen eskubideak eta betebeharrak

22. artikulua. Honako arrazoi hauek eraginda galduko da bazkide izaera, edozein izanik ere:

- a) Bazkidearen heriotzagatik
- b) Bere borondatez baja hartzeagatik.
- c) Bi hilabete baino gehiago igaro badira kuota ordaindu gabe edo Peñarekiko edo ANAITASUNA K.K.A.E. arekiko dituen beste zor batzuk ordaindu gabe; egokia bada.
- d) Kanporaketa arrazoian erori izana.

23. artikulua. Bazkide orok, haren izaera edozein izanik ere, honako eskubide hauek ditu:

- a) Peñak eskura dituen lokalak eta tresnak erabili eta gozatzea, bai eta Peñak parte hartu eta/edo antolatzen dituen ekitaldiak ere.
- b) Peñako Zuzendaritza Batzordeari iradokizun eta/edo kexa ahozkoak edo idatziak helaraztea, betiere errespetuz.
- c) Beraren kontra bideratzen diren zigor espedientei dagokien kasuetan entzuna izateko eskubidea, **hala badagokio.**
- d) Batzarretara joateko eskubidea, hizpidea eta botoa dituela, **hala badagokio.**
- e) Hautatua izateko eskubidea zuzendaritza lanak egiteko, egokia bada.
- f) Peñaren Araudia eta Funtzionamendua bete daitezela eskatzea.

24. artikulua. Bazkide orok, haren izaera edozein izanik ere, honako betebeharrak ditu:

- a) Barne Araubide honek xedatutako oro betetzea, bai eta Peñako Araudia eta Funtzionamendua ere.
- b) Bazkideen artean, bizikidetzatza eta errespetu espiritua zabaldu eta sustatzea.
- c) Peñako ondasun guztiak kontserbatu eta zaintzea, Bazkide guztien ondare baitira.
- d) Ezartzen den kuota edo diru betebeharrak puntualtasunez ordaintzea.
- e) Peñan kontsumitutakoa ordaintzea.
- f) Datu aldaketa oro jakinaraztea.
- g) Peñan behin betiko baja hartu duela idatziz jakinaraztea; horrek indarra hartuko du, behin behar bezala sinatutako idatzia Elkartearen bulegoetan aurkeztutakoan.
- h) Dagokion urteko jarduera egitea, Peñako Zuzendaritza Batzordeak, Araudiak eta Peñaren Funtzionamendua une bakoitzean ezarritakoarekin bat.
- i) Jarduera irregular oro eta Peñaren interesen edo ondasunen aurkakoa salatzea.



III. TITULUA ZIGORRAK

I. KAPITULUA Zigor mailak

25. artikulua. Bazkideek eta haren kargupeko edonork Peñaren lokal barruan eta Peñak antolatutako ekitaldietan egindako hutsegite oro kalifikatzeko, hutsegitearen garrantzia edo asmoa hartuko da kontuan, eta arina, larria edo oso larria izanen da, eta Bazkideari zigorra ezarriko zaio.

Ondorengo paragrafoetako talde bakoitzean dauden hutsegiteak adierazi baizik ez dira egin, eta ez du esan nahi besterik izan ez daitekeenik, eta beste horiek kalifikatuko dira hemen ageri diren hutsegiteekin duten analogiaren arabera.

26. artikulua. Hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izanen dira, haien zehaztasunaren arabera. Hutsegite arinak 30 egunera preskribatuko dira; larriak, 90 egunera, eta oso larriak, 180 egunera.

1. Hutsegite arin gisa zigortzen ahalko dira Erregelamendu honetan edo ANAITASUNA K.K.A.E.aren Estatutueta larrizat edo oso larrizat jotzen ez direnak; halaber jarduera oro zigortzen ahalko da, baldin eta honakoak betetzen ez baditu:

- a) ANAITASUNA K.K.A.E.aren Estatutuak
- b) Barne Araubideko Erregelamendu hau.
- c) Peñaren Araudia eta Funtzionamendua.

2. Hutsegite larri gisa zigortzen ahalko dira, fede txarrez edo doloz egindakoak, hala nola:

- a) Peñan kontsumitutakoa ez ordaintzea.
- b) Peñako derrigorrezko txanda bere osoan eta/edo ongi ez betetzea.
- c) Peñaren lokaletan edo ekitaldietan liskarretan parte hartzea.

3. Hutsegite oso larri gisa zigortzen ahalko dira, fede txarrez edo doloz egindakoak, hala nola:

- a) Peñaren giltza pertsonala bazkideak ez direnei uztea.
- b) Peñako instalazioak eta materiala gaizki erabiltzea.
- c) Peñaren lokalean legez kontrako ekitaldiak egitea.
- d) Peñaren lokaletan edo/eta ekitaldietan liskarretan parte hartzea.
- e) Beste pertsona batzuei eraso egitea fisikoki, hitzez edo sexualki.
- f) Peñaren lokalean eta/edo ekitaldietan ebasketak edo lapurretak egitea, bai hirugarrenei, bai Peñari berari.
- g) Peñaren jarduerak trabatzera bideratutako ekintzak egitea, bai bakarka bai taldeka.
- h) Peñako derrigorrezko txanda ez betetzea.



II. KAPITULUA Zigorren iraupena

27. artikulua. ANAITASUNA K.K.A.E.aren Estatutueta 14. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa gorabehera, hutsegiteak honela zigortuko dira:

- a) ARINAK: Ahozko edo idatzizko ohartarazpen pribatu baten bidez zigortuko dira.
- b) LARRIAK: honako eskubideak kenduko zaizkio 30 egunetik 90era bitarte:
 - 1. Ez du zilegi izanen Peñaren lokalen eta tresnen erabilera eta gozamina; ezta Peñako beste bazkide batekin egonda ere.
 - 2. Ez du zilegi izanen Peñak antolatutako jardueretan parte hartzea.
 - 3. Ez du zilegi izanen bere borondatez baja hartzea; eta zigorraldian sortutako kuotak ordaindu beharko ditu.
- c) OSO LARRIAK: arestian aipaturiko eskubide horiek 90 egunetik 360 egunera bitarte kenduta edota Peñako kide gisa zuzenean kanporatuta.

Lehen hutsegitea egin ondoren, 6 hilabeteko epean berriz ere hutsegite larria egiten dutenei Peñako Zuzendaritza Batzordeak kasuan kasuko zigorraren goren maila aplikatzen ahalko die.

Lehen hutsegitea egin ondoren, 3 hilabeteko epean berriz ere hutsegite arina egiten dutenei Peñako Zuzendaritza Batzordeak kasuan kasuko zigorraren goren maila aplikatzen ahalko die.

Peñako Zuzendaritza Batzordeak ahalmena dauka hutsegite oso larriaren zigorraren iraupena hutsegite larrira murrizteko, egokitzen jotzen bada; halakoetan, azalpenak eman beharko ditu Batzarraren aurrean, Batzarrak eskatuta.

Peñako Zuzendaritza Batzordeak ahalmena dauka, arestian aipaturiko zigorrak Peñarendako derrigorrezko lanekin zenbatzeko, betiere 26. artikuluko 2b eta 2c puntutik eratorritako hutsegiteei dagokienez.

Kalifikazioa edozein izanda ere, zigor orok berarekin dakar ordaingabeak, kalteak eta hondaketak ordaindu beharra.

III. KAPITULUA Prozedura

28. artikulua. Peñako Zuzendaritza Batzordeak baldin badaki gertatu dela hutsegite larri edo oso larriaren kalifikazioa merezi duen edozein egintza zigorgarri, kasuan kasuko espedientea abiarazi, ustezko arau-hausleari entzun, egintzak aztertu eta, eskura dituen bitartekoen bidez, ustezko hutsegitea egiaztatuko du, eta bidezkoa bada, dagokion zigorra berretsiko du.

Peñako Zuzendaritza Batzordeak beretzat gordetzen du ustezko arau-hausleari entzunaldirik ez emateko eskubidea, 26. artikuluko 3h puntuaren ondoriozko hutsegiteen kasuan.

Zuzendaritza Batzordeak ustezko arau-hausleari entzuten dionetik zigorra berretsi bitartera, ustezko arau-hausleak ez du Peña erabiltzerik izanen. Epealdi hori gehienez 15 egun naturalekoa izanen da, eta hutsegitea inolako zigorrik gabe geldituko da, egun gehiago igarotzen badira, eta Peñako Zuzendaritza Batzordeak azalpen bat eman beharko du horrengatik Batzarraren aurrean, Batzarrak eskatuta.

29. artikulua. Peñako Zuzendaritza Batzordeak onetsitako zigor ebazpena gutun ziurtatu baten bidez jakinarazi beharko zaio dagokionari, edo bestela, Peñako lehendakariak eman beharko dio. Nolanahi ere, ebazpenaren aurkako errekurtsioa jartzen ahalko da, azken instantzian, Bazkideen batzarraren aurrean, eta zigortuak 15 eguneko epea izanen du zigorra jakinarazten dioten egunaren biharamunetik aurrera, Peñako Zuzendaritza Batzordeari exijitzeko dei dezala Batzar Berezi bat horretarako. Batzar Berezia hurrengo 15 eguneko epe barruan deitu beharko da.

Zigortuak ez du zilegi izanen Peña erabiltzea, Bazkideen Batzarrak behin betiko erabakia hartu arte. Batzar horretan ez du botorik izanen, baina bai hizpidea bere jarrera defenditzeko.



30. artikulua. Peñatik kanporatua izan den bazkideak, haren izaera edozein izanik ere, ez du berriro sartzerik izanen 6. artikuluan aipatutako ezein kategoriatara.

Zigor guztiak Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari jakinarazi beharko zaizkio, eta haiek ikusiko dute zigorra ANAITASUNA K.K.A.E.aren instalazioetara zabaldu behar ote den.

IV. TITULUA ZUZENDARITZA ORGANOAK

I. KAPITULUA Bazkideen Batzarra

31. artikulua. Bazkideen Batzarra, edo Batzarra Peñako gobernu organo gorena da, eta Bazkide Zenbakidunek, Adineko Bazkideek eta Kanpo-Laguntzaileek osatzen dute.

32. artikulua. Batzarrean boto eskubidea erabili ahal izateko, beharrezkoa izanen da egunean izatea bai kuotak, bai Peñarekin hartutako gainerako betebeharrak, eta era berean, ez egotea sartua ezein zigor espedientetan.

33. artikulua. Batzarra Arrunta edo Berezia izan daiteke, zer izaerarekin deitzen den.

Urtean gutxienez bi Batzar Arrunt eginen dira, biak ere Peñako Batzordeak deituta; lehenbizikoa ekainaren 30a baino lehen, eta bigarrena, berriz, urriaren 31 baino lehen.

34. artikulua. Batzarretarako deialdia honela eginen da:

- a) 7 eguneko epearekin, Berezia bada.
- b) 15 eguneko epearekin, Arrunta bada.

1.-Bi kasuetan gutun bana bidaliko da Batzarra osatzen duten bazkideen helbidera, deialdien gai zerrenda, data, lekua eta ordua zehaztuta.

2.-Helbide elektronikoko bat adierazten ahalko da, Batzarrean aurreikusitako jakinarazpenak egiteko, betiere baldin eta komunikazioaren eta edukiaren egiazkotasuna bermatzen bada, eta era frogagarrian jasota geratzen bada bere osoan bidali eta jaso direla, eta zer unetan.

35. Batzarra balio osoz eratuko da lehen deialdian, deialdia jaso duten bazkideen erdiak baino bat gehiago bertaratzen badira, eta bigarren deialdian, bertaratzen direnen kopurua edozein izanda ere.

Nolanahi ere, Batzarra eratuko bada, gutxienez Peñako Batzordeko bi kidek egon beharko dute, eta bi horiek Batzarra kudeatuko dute.

36. artikulua. Batzarretako erabakiak gehiengo soilez hartu beharko dira, balioa izan dezaten, Peña desegiteko izan ezik.

Bozketen emaitza loteslea izanen da, eta aztrgai izan badaitezke ere, ez da deus erabakiko gai zerrendan ez dauden gaien gainean.

37. artikulua. Batzar Arruntak ahalmena dauka besteak beste gai hauez aritzeko:

- a) Batzarraren azken saioaren Akta onestea, hala bada.
- b) Aurreko urteko urtealdi ekonomikoko gastu eta diru-sarreraren kontua aztertu eta onestea.
- c) Peñako jardueren txostena.
- d) Zigor arloan jarritako hutsegiteak, Batzarraren azken saiotik.
- e) Bazkideek ordaindu beharreko kuotak eta karga ekonomiko oro finkatzea.
- f) Peñako lehendakaritza hautatzea.
- g) Gai zerrendan dagoen beste edozein gai, ez baldin bada Batzar Bereziaren eskumenekoa.



38. artikulua. Batzar Bereziak ahalmena dauka gai hauez aritzeko:

- a) Aurrekontu bereziak onestea, baldin eta Peñako bazkideek derrama bidez ordaindu beharreko gastuak eragiten badituzte
- b) Aurrekontu bereziak onestea, baldin eta, derramarik ez badaukate ere, Peñan aldaketa nabarmena eragiten badute edo/eta inbertsioa gutxienez bada aurreko urtealdiko gastu kontuen % 20ren baliokidea.
- c) Peña desegitea, Erregelamendu honetako VII. Tituluak ezarritakoaren arabera.
- d) Lehendakariaren dimisioa, haren alegazioei arreta eginez, eta dimisioa onestea edo ez.
- e) Zigor arloan ezarritako faltak Batzarraren azken saiotik.
- f) Barne Araubideko Erregelamendu hau aldatzea.

Horretarako, Peñako Zuzendaritza Batzordeak batzorde berezi bat izendatu beharko du erreforma aztertzeko, eta Peñako Zuzendaritza Batzordeko kideak izan daitezke edo ez, baina beti Peñako edozein kategoriatako kide izan beharko dute, eta epe zabal bat emanen die bazkideei, sartu nahi diren aldaketen berri izateko eta egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko. Bazkideek, gainera, beren alegazioak defenditzeko eskubidea izanen dute horretarako deituko den Batzar Bereziaren.

II. KAPITULUA Peñako Batzordea

39. artikulua. Peñako gobernuak, zuzendaritza eta kudeaketa ekonomikoa Peñako Batzordearen kargura egonen dira. Batzordeak lau zuzendari-kargu izanen ditu: lehendakaria, lehendakariordea, diruzaina eta idazkaria; laurek ere Bazkide Zenbakidunak izan beharko dute. Horrez gain, Batzordeak gutxienez hiru kide izanen ditu, eta kide horiek adinez nagusiak diren hiru kategoriakoak izan daitezke.

40. artikulua. Inork Peñako Batzordeko kide izan nahi badu, gutxienez 6 hilabeteko antzinatasuna izan beharko du Peñako bazkide gisa.

Inork zuzendari-kide izan nahi badu Peñako Batzordeko edozein kargutan, gutxienez 18 hilabeteko antzinatasuna izan beharko du Peñako bazkide gisa.

Bi kasuek ez dute ondorioz izanen, haietara iritsiz gero Erregelamendu honetako 47. artikulua bidez.

41. artikulua. Peñako Batzordearen % 50ek Bazkide Zenbakiduna izan beharko du.

42. artikulua. Peñako lehendakaria Elkarteko lehendakariak izendatuko du, peñako batzarrak proposatuta.

43. artikulua. Peñak Elkarteko Zuzendaritza Batzordean duen ordezkaria Elkarteko lehendakariak izendatuko du, egokia bada, eta Peñako Zuzendaritza Batzordeko kide izan beharko du.

44. artikulua. Peñako lehendakariak izendatu beharko ditu Batzordeko gainerako zuzendari-kargu eta kide guztiak.

45. artikulua. Anaitasuna Peñak Peñen Federazioan duen ordezkariak, egokia bada, Peñako Zuzendaritza Batzordeko kide izan beharko du.

46. artikulua. Peñako lehendakari kargua Batzarraren esanetara jarriko da 24 hilean behin, urteko lehen bi hilabeteetan.



47. artikulua. Hautagairik ez badago:

- a) Zozketa bat eginen da Bazkide Zenbakidunen artean, eta 6 lagun aterako dira. Era berean, beste zozketa bat eginen da Kanpo-Laguntzaileen artean, eta 3 lagun aterako dira. 9 lagun horiek Kudeaketa Organo bat sortuko dute, Elkarteko lehendakariak izendaturiko figura batek koordinatua, egokia bada. Behar adina Kanpo-Laguntzailerik ez badago horretarako, Bazkide Zenbakidunek osatuko dute 9 laguneko kopurua.
- b) Aipatu Organoak 12 hilabeteko balioa izanen du, eta denboraldi hori igarota, berriz ere beste Kudeaketa Organo bat osatuko da, hautagairik ez badago; **Zozketatik kanpo geratuko dira aurreko 5 urteetan organo kudeatzaileak osatu dituzten pertsonak.**
- c) Inork ezin izanen dio uko egin Kudeaketa Organoko kide izateari, salbu eta Bazkide izaera galtzen badu.
- d) Epealdi horretan hautagaitzarik aurkezten bada, Kudeaketa Organoa arduratuko da behar diren Batzar Arrunten eta Berezien deialdia egiteaz, harik eta Peñako Batzorde berrira aldatzen den arte, egokia bada. Bestela, Kudeaketa Organo gisa jarraituko lukete 12 hilabete bete arte.

48. artikulua. Kideren batek dimititzen badu, kide berri bat hautatzeko ahalmena izanen du baja hori betetzeko.

49. artikulua. Peñako lehendakariak ez du dimititzerik izanen, berariaz horretarako deitzen den Batzar Bereziak onesten ez badu.

Peñako Batzordeko gainerako zuzendari-karguek (lehendakariordeak, diruzainak eta idazkariak) ezin izanen dute dimititu, lehendakariaren onespenerik gabe.

Kideek dimititzeko askatasuna izanen dute, eta ez dute baimenik beharko.

50. artikulua. Peñako Batzordeak ahalmena izanen du, Erregelamendu honetan xedatutako gauza guztiak betearazteko, eta era berean, Peñaren jardun onerako komenigarriak iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko, baldin eta Batzarraren eskumenekoak ez badira.

51. artikulua. Peñako Batzordeak bertaratu diren batzordekideen gehiengo soilaz hartuko ditu erabakiak. Peñako Batzordeko kideek isilean gorde beharko dituzte bileretan esandakoak eta eztabaidatutakoak.

52. artikulua. Peñako Batzordeak Peñaren indarreko Araudia eta Funtzionamendua izan beharko ditu bazkideen eskura era idatzian.

53. artikulua. Zigorren ondorioetarako, Peñako Batzordeko kideak bazkidetzat joko dira, eta ez dute inolako pribilegiarik izanen Batzordeko kide izateagatik.

54. artikulua. Peñako lehendakaria Peñako ordezkaria da Peñari interesatzen zaizkion kontu orotan, eta eskumen hauek izanen ditu:

- a) Zuzendaritza Batzordeen eta Batzar Arrunten eta Berezien deialdiak egitea.
- b) Haietan hartzen diren akordioak betearaztea, horretarako behar diren gestio guztiak eginez.
- c) Zuzendaritza Batzordeko karguak izendatu eta kentzea.
- d) Peña partaide den betebeharrak eta kontratuak baimentzea, Elkartearen Estatutuekin bat.
- e) Erregelamendu hau bete dadila zaintzea.
- f) Bazkideen kexak eta oharrak entzutea eta Batzordeari helaraztea.

55. artikulua. Lehendakariordeak Lehendakariari bere lana egiten lagunduko dio eta aldi baterako ordezkaturiko du, edozein arrazoik eraginda Lehendakariak bere eginkizunak bete ezin dituenean.

Idazkariak Peñako dokumentazioa zaindu eta Batzarretako aktak idatziko ditu. Aktek idazkariaren eta lehendakariaren sinadura izan beharko dute, eta bazkideen eskura egon beharko dute Peñako Araudian eta Funtzionamenduan.

Diruzaina kontularitza-dokumentazioaz arduratuko da, eta azterlan ekonomikoak eta balantzeak eginen ditu, egokia bada.

Kideek Peñako Batzordeko gainerako kideei beren lanetan lagunduko diete.



V. TITULUA PEÑAREN SEGURTASUNA ETA KONTROLA

56. Peñako Batzordeak behar adina neurri sustatzen ahalko ditu lokala eta Peñaren jabetzapeko objektuek ongi funtzionatzeko.

I. KAPITULUA Bideo-zaintza kamerak

57. artikulua. Anaitasuna Peñak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa beteko dela bermatzen die bazkideei.

VI. TITULUA ONDAREA ETA BALIABIDE EKONOMIKOAK

58. artikulua. Peñaren ondare soziala Peñak dauzkan ondasun eta eskubideek osatzen dute.

59. artikulua. Peñak bere kideen kuotak ditu eskura, behar diren gastuak ordaintzeko, Erregelamendu honen II. Tituluarekin bat, eta halaber, antolatzen dituen jardueren irabaziak, jasotzen dituen dohaintzak eta diru-laguntzak edota zuzenbidean aitorturiko edozein bidez eskuratzen dituen dirutza oro. Horiek guztiek Peñaren funts sozialak osatuko dituzte.

60. artikulua. Peñak ez du irabazi-asmorik; horrenbestez, bere funts sozial guztiak erabiliko dira bere xedeak lortzeko.

61. artikulua. Peñaren eragiketak honako prozedura honen bidez fiskalizatzen ahalko dira:

Peñako bazkide orok eskabide bat aurkeztu dezake ANAITASUNA K.K.A.E.ko bulegoetan, honela:

1. Arrazoiak azalduta; arrazoi horiei buruzko zantzu edo agiri oro aurkeztuta.
2. ANAITASUNA K.K.A.E.ko lehendakariak, gerentziarekin batera koordinatuta, behar diren bitartekoak erabiliko ditu usteko irregulartasuna argitzeko.
3. Irregulartasunik bada, edo komenigarri jotzen badu, ANAITASUNA K.K.A.E.ko lehendakariak egokien ikusten duen moduan jakinaraziko die Peñako Bazkideei, eta horri buruz egoki jotzen duen iritzia hartuko du.

62. artikulua. Peñako lehendakaria, edo Peñak Elkarteko Zuzendaritza Batzordean duen ordezkaria, behartua dago aurkeztera urtealdi bakoitzeko kontuak Elkarteko Zuzendaritza Batzordeari.

Era berean, lehendakariak, edo diruzainak haren izenean, urtealdiko kontu horiek aurkeztu beharko ditu Batzar Arruntean Peñako bazkide guztiei, hau da, aipatu batzarrean daudenei.

VII. TITULUA PEÑA ATALA DESEGITEA

63. artikulua. Peña denbora mugagaberako dago eratua, baina desegiten ahalko da, Elkartearen Estatutuen 66. artikuluekin eta hurrengoekin bat, baina betiere Peñatik bertatik kudeatuta.



AZKEN XEDAPENA

Peñako Batzorde bakoitzak “Peñaren Araudi eta Funtzionamendua” izeneko agiri bat aurkeztu eta argitaratuko du bazkideentzat, egoki jotzen dituen bitartekoak erabiliz. Agirian barne arauak eta peñako bazkide guztien eskubideak arautuko dira.

Peñaren Araudi eta Funtzionamendua Peñako iragarki-oholean argitaratuko da edota ageriko toki batean, azken eguneraketaren datarekin batera, bazkide guztiek haren berri izan dezaten.

Edozein unetan aldatzen ahalko da, Peñako Batzordeak egokitzat jotzen badu, eta Peñako gainerako kideei jakinarazita. Aldaketa horiek, denbora jakin baterako indarra duten puntuak errespetatuko dituzte, epemugara iritsi arte.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Barne Araudiko Erregelamendu honetan aurreikusita ez dagoen orotan, ANAITASUNA K.K.A.E.aren indarreko Estatutueta ezarritakoak arautuko du.

ONESPEN EGINBIDEA. Jasota geratu da Barne Araubideko Erregelamendu hau hirurogeita hiru artikuluz, azken xedapen batez eta xedapen gehigarri batez dagoela osatua. Hamar folio zenbakidunetan bilduta dagoa, ANAITASUNA K.K.A.E.aren eta ANAITASUNA PEÑAren armarrak idazpuruan daudela. Erregelamendua Peñako Batzar Berezian onetsi zen –bere garaian izaniko pertsonekin–. Batzarra xede horretarako deitu baitzen 2017ko apirilaren 1erako, eta onetsi den unean hasi da aplikatzen.

LEHENENGO ALDAKETA-EGINBIDEA. Jasota geratzen da Barne Araudiari buruzko Erregelamendu honetako 23., 28. eta 47. artikulua aldatu eta onartu egin zirela Peñako Ezohiko Batzarrean, 2020ko martxoaren 7an horretarako deitutako pertsonekin.

PEÑAKO LEHENDAKARIA,
Gabriel Maeztu Santiago

PEÑAKO IDAZKARIA,
Javier Etxeberría Gartxitorena

ELKARTEKO LEHENDAKARIA,
Miguel Ollacarizqueta Elizondo

Iruñean, 2020ko martxoaren 9an

